

Hala eta guztiz ere, lehen esan dugunez, espezie hori batez ere mendi baxuan ustiatu da, eta beraz, oso ondo egokitzen da abeltzaintza eta basoko aprobetxamendua konbinatzen dituen eredura (larre-basoa); izan ere, zuhaitzen artean bazka ona hazteko aukera ematen du eta,aldi berean, abereek kontrolpean mantentzen dituzte lurzoru osoa okupatzeko joera duten ametz txikiak.

Quercus robur L.

Haritza.

Haritza zuhaitz sendoa eta tamaina handikoa da (40 m-ko altuera har dezake), eta adaburu zabala du, biribila edo irregularra. Hostogalkorra da, eta enbor zuzena du, laburra eta oso lodia; enborra arrakalaz beteriko azal arre-grisaxkaz estalia du. Hostoek 6-12 cm bitarteko luzera eta 3-6 cm bitarteko zabalera dute; ertz lobulatuak dute, eta inguru obobatuak. Orria ilegabea da bi aldeetan eta, oinaldean, peziolo laburra biltzen duten bi belarritxo ditu. Lore arrak gerba zintzilarietan elkartuta daude eta ezkurak (banan-banan edo 2-3 aleko multzoetan) pedunkulu luzeetatik zintzilak daude.

Europa epeleko zuhaitz espezie nagusietarikoa da; Portugaletik Errusiara (Ural mendiak baino urrunago) eta Eskandinaviako hegoaldetik Italiara hedatzen da. Ez du jasaten klima mediterranearen lehentasuna, eta eskualde horretan nekez ikusiko dugu espezie honetako zuhaitzik. Erlaitz Kantabriarrean zuhaitzik ohikoenetarikoa bat da, baso potentzialak eratzen baititu 600 m-tik beherako altitueda duten zona guztietan. Substratu silizeotan nahiz karetsuetan egon daiteke, eta ez du ondo jasaten lurzoruaren istiltzea.

Robur izena latinetik dator; izan ere, erromatarrek haritzak edo edozein zur gogor izendatzeko erabiltzen zuten hitz hori, baita adorea adierazteko ere. Bizitza luzeko zuhaitza da eta mila urtetik gora iraun dezake. Haritzaren zura oso estimatua izan da, gogorra, ustelgaitza eta leuntzeko ona delako. Hori dela eta,

Haritzaren hostoak uda amaieran hasten dira zimeltzen (L).



Las hojas del roble inician su marchitamiento a finales de verano (L).

Quercus robur L.

Roble común, roble del país, roble pedunculado

El roble común es un árbol robusto y de gran talla, con hasta 40 m de altura, y de amplia copa redondeada o irregular. Su hoja es caduca y su tronco recto, corto y muy grueso, revestido de una corteza pardo-grisácea muy agrietada. Las hojas son de entre 6 y 12 cm de largo por 3 a 6 de ancho, de borde lobulado y contorno obovado. El limbo es lampiño por ambas caras y presenta dos orejuelas en su base que arropan el corto pecíolo. Las flores masculinas se agrupan en amentos colgantes y las bellotas, solitarias o en conjuntos de 2 ó 3, cuelgan de largos pedúnculos.

Es una de las especies de árboles más representativas de la Europa templada, extendiéndose desde Portugal hasta Rusia más allá de los Urales, y desde el sur de Escandinavia hasta Italia. No soporta la sequedad del clima mediterráneo,

Haritza (*Quercus robur*), bere eite bikainagatik eta sendotasunagatik, landako gizarte tradizionalaren zuhaitz sinbolikoa da (L).

El roble (*Quercus robur*), por sus porte formidable y por su robustez, es un árbol simbólico en la sociedad rural tradicional (L).





Haritzak ezkur kantitate handia sortzen du, batez ere bi urterik behin; horrela, basoko animaliei janari ugari eskaintzen die; lehenago abereei eta pertsoneri ere bai (L).

El roble común produce gran cantidad de bellota, sobre todo en años veceros, aportando un importante recurso alimenticio a los animales salvajes y antiguamente también al ganado e incluso a las personas (L).

sarri erabili izan da zurgintzan, upelgintzan eta eraikuntzan. Haritzaren zura oinarritzko materiala zen antzinako ontzigintzan; horren eraginez, herri administrazioek (itsas armada ere barne) xedapen bereziak ematen zituzten harizti kantabriarren erabilera egokia arautzeko. Haritzaren zura egurra egiteko ere erabili da, eta gainera, egur-ikatz ona sortzen du. Azala, berriz, larruak ontzeko erabili da, eta ezkurak, azkenik, txerriak elikatzeko (gizakiak elikatzeko ere bai, goseteetan).

Haritza espezie enblematikoa da euskaldunontzat. Adibiderik ezagunena Gernikako arbolarena da; horren azpian Bizkaiko herrietako ordezkarien batzarrak edo bilerak egiten ziren. Haritz legendarioaren enborra kontserbatu egiten da oraindik; 1811n hil zen eta haren ondorengoak (orain dela urtebete hilda) mende eta erdi baino gehiagoan bete izan du leku tradizionala. Bertatik ondorengo asko lortu dira; horiek Euskal Herriko eta bertatik kanpoko lorategi nahiz parke askotan landatu dira, eta ondorengo horietariko batek beteko du Juntetxean



Haritzaren hostoak eredu hartuta armarrietarako motibo asko sortu dira Europa osoan eta, bereziki, Euskal Herrian; bertan haritz batzuek, adibidez, Gernikako Arbolak, garrantzi handia dute eta nolabait gurtu egiten dira (L).

La hoja de roble ha inspirado numerosos motivos heráldicos en toda Europa, y particularmente en el País Vasco, donde algún ejemplar, como el Árbol de Gernika, tiene un importante significado y es objeto de una cierta veneración (L).

hallándose prácticamente ausente de dicha región. En la Cornisa Cantábrica es uno de los árboles más comunes, pues forma bosques potenciales en todas las zonas por debajo de los 600 m de altitud. Es indiferente a la condición silíceo y calcárea del substrato y soporta mal el encharcamiento del suelo.

El nombre robur viene del latín, pues los romanos empleaban esta palabra para designar los robles o cualquier madera dura; incluso para indicar fortaleza de ánimo. Es un árbol particularmente longevo, pudiendo llegar a sobrepasar los mil años de edad. Su madera ha sido una de las más apreciadas por su dureza, su grano fino, su resistencia a la putrefacción y su buen pulimento. Por ello ha sido particularmente útil en carpintería, tonelería y en construcción. La madera de roble era el material básico en la construcción naval de antaño y, con tales fines, había por parte de administraciones públicas, incluida la Marina, disposiciones específicas para el manejo adecuado de los robledales cantábricos. Su madera también ha sido muy utilizada como leña y produce un buen carbón vegetal. La corteza se ha usado como curtiente y las bellotas para alimentar a los cerdos, cuando no a los humanos en años de hambruna.

El roble es una especie emblemática para los vascos. El ejemplo más conocido es el del roble de Gernika bajo el cual se celebraban las juntas o reuniones de los representantes de los pueblos de Bizkaia. El ejemplar legendario, del que se conserva su tronco, murió en 1811 y su hijo, fallecido hace escasamente un año, ha ocupado durante más de siglo y medio el lugar tradicional. De él se han obtenido numerosos descendientes que se cultivan en los jardines y parques de vascos y vascófilos de muchos lugares y uno de ellos ha sido destinado a ocupar la vacante de la Casa de Juntas. También la hoja de roble es usada como motivo heráldico en algunas instituciones del País Vasco, como el Gobierno Vasco, la Ertzaintza o la propia Diputación Foral de Bizkaia, pero a pesar de tanto culto, de

hutsik dagoen lekua. Haritzaren hostoa irudi heraldikotzat ere erabili da Euskal Herriko erakunde batzuetan, adibidez, Eusko Jaurlaritzan, Ertzaintzan edo Bizkaiko Foru Aldundian; hala eta guztiz ere, halako gurtza handia eduki arren eta Euskal Herriko espezierik berezietariko bada ere, haritzak neurri batean galdu egin du euskaldunek lehen zioten estimu handia, azken bi mendeetan haritz kopuruak murriztapen oso gogorra izan baitu.

Quercus suber L.

Artelatza.

Zuhaitz hostoiraunkor hau tamaina ertainekoa da eta 20-25 m-ko altuera har dezake; artearen antzekoa da. Hala ere, arteak baino azal lodiagoa du, 15 cm-ra artekoa, eta azal hori harroa eta arina da; ildaxka luze eta bihurrietan arrakalazten da. Azalari kortxo deitzen zaio. Kortxoa ateratzen denean, enborra barruko azal leunaz estalita gelditzen da eta azal horrek kolore gorri bizi eta iluna du, pintaturik balego bezala; azal osoa duten artelatzei "bornizo" esaten zaie. Zuhaitzaren adaburua zabala eta ia hemisferikoa. Hostoak luzangak eta obatuak dira, 3-7 cm luze, eta urte bat edo bi egoten dira zuhaitzean; horri esker, zuhaitzak modu ia iraunkorrean mantentzen du kolore berdea. Hala ere, urtero, neguaren amaieran edo udaberriaren hasieran, hostotza apur bat urritzen zaio, hosto zahar asko erori eta berriak oraindik garatu barik egotearen ondorioz. Hostoak gogorrak dira. Hosten gainaldea berde distiratsua da, eta azpialdea grisaxka edo zurixka, feltro trinko batekin estalita dagoelako; izar itxurako ileek osatzen dute estaldura hori. Ezkurra artearenaren antzekoa da, baina mingotsagoa, eta kupularen goialdeko ezkatetik punta okerra dute.

Artelatza mendebaldeko zuhaitz mediterranearra da; Italiako Tirrenoko kostaldetik eta Korsika, Sardinia eta Frantziako hegoaldetik Portugal eta Marokoraino hedatuta dago. Lurzoru silizeoak atsegin ditu eta arteak baino euri gehiago behar du; aldiz, izozteak ez ditu arteak bezain ondo jasaten, eta beraz, batez ere zuhaitz mesofitikoa da, hain muturrekoak ez diren baldintzetara egokitua. Iberiar penintsulan oso ugaria da Portugalen, eta iparralderantz Galiziatik eta Asturiasetik sartzen da. Euskal Herrian oso bakana da eta kostaldeko eskualdeetako hareharrien gaineko populazio batzuk baino ez dira ezagutzen. Garrantzitsuen Meagakoa da, Zarautzen. Bizkaian are urriagoa da, hiru gunek baino ez dira ezagutzen eta: Markinan, Armintzan eta Arraiz mendian (Bilbo). Ipar-ekialderantz, berriro ere ohikoa da Landetan.

Kortxoaren aprobetxamendua ez ezik (artelatzen produktu nagusia), beste bi aprobetxamendu interesgarri ere badira: ezkurak abereentzat eta adar gazteen azala, lehen larruak ontzeko erabiltzen zena. Kortxoa, 8-12 urtean behin, plantzetan ateratzen da enborretik; kontuz ibili behar da barruko azalean kalterik egin barik, enborren barruko ehunak babestu egin behar baitira. Txerriek nahiago izaten dituzte karraskaren ezkurak, gozoagoak direlako, baina artelatzen ezkurrek denbora luzeagoa behar dute heltzeko, eta beraz, baliabide horren aprobetxamendua hobeto bana daiteke. Zura gogorra da eta zurgintzan edota erreminta batzuen fabrikazioan erabiltzen da. Bikaina da erretzeko eta egur-ikatz egiteko. Bizitza luzeko zuhaitza da eta 500 urte iraun dezake; kortxoa modu intentsiboan ateratzen bada, askoz ere bizitza laburragoa izaten du. Gure artean oso zuhaitz bakana dela-eta babestu egin du 11/97 Foru Arauak artelatza. Izan ere, Bizkaian espezie hau babesteko ahalegina egin beharko genuke.

veneración y de ser una de las plantas más propias y genuinas de su país, el roble parece ser haber perdido una parte de su aprecio por los vascos en la actualidad, pues ha visto drásticamente reducidos sus efectivos en los dos últimos siglos.

Quercus suber L.

Alcornoque

Es un árbol perennifolio de mediana talla, que suele alcanzar los 20 a 25 m de altura, y parecido a la encina. De ésta se diferencia claramente por su gruesa corteza, de hasta 15 cm de grosor, esponjosa y liviana, que se resquebraja profundamente en largas y sinuosas hendiduras. Esta corteza se llama corcho cuando se beneficia, cosa que sucede a casi todos los alcornoques. Cuando se extrae el

Artelatza (*Quercus suber*) zuhaitz hostoiraunkorra da, hau da, urte osoan hosto berdeak ditu adarretan. Hostoak gogorrak dira eta izar itxurako ileek osatutako indumentu trinko eta laburra dute, azpialdean trinkoagoa gainaldean baino (L).

El alcornoque (*Quercus suber*), es un árbol perennifolio, es decir que mantiene durante todo el año hojas verdes en las ramas. Éstas son correosas y están cubiertas de un indumento denso y corto de pelos estrellados que es más tupido por el envés (L).

